

GASTEIZKO EUSKARA ZERBITZUA: ESKOLAZ KANPOKO AISIALDIAREN ETA FAMILIA AISIALDIAREN AZTERKETA GASTEIZEN

EGITASMO PROPOSAMENA
IKERKETA KUANTITATIBOA, 2021


1. EGITASMOAREN AURKEZPENA

Aztiker Soziologia Ikerguneak, Gasteizko Euskara Zerbitzuaren eskariz, ikerketa egitasmo proposamen bat diseinatu du honako gaia ikertzeko: Gasteizen eskolaz kanpoko aisialdiaren eta familia aisialdiaren ezaugarriak eta eremu horietan euskarak duen presentzia.

Esan beharrik ez dago egitasmo hau proposamen bat dela eta erabat irekia dagoela Euskara Zerbitzuak egin ditzakeen ekarpenetara. Hurrengo hilabeteetan zehar ikerketa diseinua osatzen joango dira Aztikerreko eta Euskara Zerbitzuko teknikariak.

2. MARKO TEORIKOA

Euskararen ezagutzan aurrerapauso handiak egin dira azken hamarkadetan, bereziki eskola formalaren testuinguruan hizkuntza-ereduen eraginez etxetik euskara ez zekiten belaunaldi gazteek hizkuntza horren ezagutza jaso dutelako. Datu estatistikoaren arabera, Gasteizen 1981ean euskaldunak %3aren bueltan zebiltzan biztanleria orokorraren baitan eta 2-34 urte bitarteko herritarren artean. 2016. urtean, berriz, herritarren laurdena pasa euskalduntzat jotzen da eta 2-34 urte bitartekoen erdiak baino gehiago (%56,3). Are gehiago, ia-euskaldunak gehituz gero, gasteiztarren erdia ingururekin euskaraz komunikatzeko aukera dagoela esan daiteke (%46,9 baitira euskaldun eta ia-euskaldunak), eta 34 urtez azpikoen %78,7rekin.



Iturria: Eustat, Euskal AEko >=2 urteko biztanleria per udalerrria, euskara-maila, adina eta aldia

Baina ikerketa soziolinguistiko ugari erakutsi dute salto handia dagoela hizkuntzaren ezagutzatik erabilera. Hala erakutsi dute azken urteetako kale-neurketek: euskararen ezagutza zabaltzen ari den garai berean, kaleko erabilera jaisten doa.¹ Gasteizko kasuan, 1993tik 2016ra bitartean goranzko joera apal bat nabaritu da, puntu bakarrekoa: 1993an erregistratutako euskararen kale erabilera %2,5ekoa zen, eta 2016an %3,7koa da (punturik altuena 2006an izan zen, %4rekin).²

Egoera horren aurrean, azken urteetan erabilera sustatzeari begirako dinamikak eta proiektuak ugarituz doaz; horien artean dago hizkuntza ohiturak aldatzeko asmoa duen Euskaraldia dinamika, dagoeneko bi aldiz egin dena.

¹ Soziolinguistika Klusterra (2016) *Hizkuntzen erabilera kale-neurketa. Euskal Herria, 2016. Prentsa-txostena*. 16. or. Hemen eskuragarri: https://soziolinguistika.eus/files/hekn2016-eu_1.pdf (2021-04-23 kontsultatua)

² Soziolinguistika Klusterra (2018) *Hizkuntzen erabilera kale-neurketa. Gasteiz, 2016. Emaizten laburpena*. Hemen eskuragarri: <https://www.vitoria-gasteiz.org/docs/wb021/contenidosEstaticos/adjuntos/es/75/68/77568.pdf> (2021-04-23 kontsultatua)

Euskararen erabilera areagotzeko eta sustatzeko –eta modu horretan hizkuntza gaitasuna indartu- oinarritzko eremuetako bat aisialdi erdi-egituratua da, edo beste modu batera esanda, eskolaz kanpoko aisialdia eta familia-aisialdia. Izan ere, euskararen transmisioan edo hizkuntzaren sozializazioan garrantzia handia du eskola arautuaz kanpo gazte eta nerabeek egiten dutenak, norekin igarotzen duten denbora, zein jarduera egiten eta zein hizkuntzetan.

Aisialdiko espazioek harremanak modu ludikoan eraikitzea ahalbidetzen dute eta emozioekin lotuta daude. Era berean, aspektu batzuk araututa edo kontrolatuta dituzte, horien artean hizkuntzen erabilera. Horregatik, espazio egokia dira euskaraz hitz egiten ez duten familien euskara-gaitasuna edo euskaraz hitz egiteko ohitura areagotzeko, eta baita adinkideen arteko jardueretan euskara txertatzeko ere. Hain justu, bi arlo horiek bereizten dira aisialdiko jardueretan: txikitan gurasoekin eta familia testuinguruan egiten diren jarduerak esanguratsuagoak dira; baina zenbat eta helduagoak izan haurrak, orduan eta garrantzia handiagoa du beste espazio batzuetan egiten den hizkuntza sozializazioak.¹

Ikerketa honetan gai horiei helduko zaie: eskolaz kanpoko aisialdia eta familia aisialdia aztertuko dira Gasteizko errealitatean kokatuta, zer-nolako jardueretan oinarritzen den aisialdi hori eta zein ezaugarri barnebiltzen dituen (lekua, aktoreak, denbora, ekintza zehatzak...). Mapa orokor horretan zein hizkuntza dauden presente ikusiko da, eta bereziki begiratuko zaio euskarak duen lekuari, hartzen duen espazioari, eman nahi zaionari eta benetan lortzen denari, eta horren guztiaren inguruan gasteiztarrek duten ikuspegiari.

¹ Hizkuntza sozializazioa, Paula Kasaresek azaltzen duen moduan, ez da noranzko bakarreko prozesu moduan ulertzen, baizik eta familiaren elkarreginaren sare dinamiko moduan, non haurra bera agente aktibo den. Hala, paradigma honetatik aztertu izan da gizarte eremuetan (etxean, eskolan, erlijio jardueretan, aisialdian... zein hizkuntza jokaera dauden (Kasares, 2015. "Euskararen belaunez belauneko jarraipena aztergai eta jomuga". *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 94: 13-45).

3. HELBURUAK ETA IKERGAIK

Segidan jasotzen dira ikerketa honek duen helburu orokorra eta helburu zehatzak

Helburu OROKORRA:	<ul style="list-style-type: none">○ Gasteizko ikastetxeetan dauden haur eta nerabeen eskolaz kanpoko eta familia aisialdiaren ezaugarriak identifikatzea, eta euskarak eremu horietan duen presentziari buruzko azterketa egitea
Helburu ZEHATZAK:	<ul style="list-style-type: none">○ Gasteizko ikastetxeetan dauden haur eta nerabeen eskolaz kanpoko eta familia aisialdiaren ezaugarriak identifikatzea:<ul style="list-style-type: none">- Zein jarduera egiten dituzten (antolatuak eta ez-antolatuak)- Zenbat denbora eskaintzen dioten jarduera bakoitzari- Zein lekutan (fisiko edo digital) egiten dituzten jarduera horiek- Norekin egiten dituzten: bakarrik, gurasoekin, lagunekin...- Zein hizkuntzetan egiten dituzten○ Gasteizko ikastetxeetan dauden haur eta nerabeen eskolaz kanpoko eta familia aisialdian euskarak duen presentzia eta aitortzen zaion balioa aztertzea:<ul style="list-style-type: none">- Euskaraz egiten diren jarduerak zer-nolako ezaugarriak dituzten- Euskara aktiboki bilatzen den ezaugarria den edo "besterik gabe" euskaraz diren jarduerak- Euskaraz antolatutako aisialdiaren inguruan zer-nolako iritzi, pertzepzio eta balorazioak dauden

Aurreko puntu guztiak aldagai soziodemografiko desberdinen arabera nola kokatzen diren aztertuko da: haurraren adina, familiako kideen euskara-ezagutza eta erabilera, maila sozioekonomikoa, jaiolekua...

Ikerketa honetan ikasturtean zehar egiten diren jardueretara mugatuko gara. Alde batetik, baloratzen dugu ikasturte barruko jarduerak pisu handiagoa dutela haur bakoitzaren hizkuntza-ibilbidean uda garaian eta oporretan egiten direnek baino, horiek denbora-tarte laburragoak baitira eta "salbuespenezko" izaera handiagoa baitute. Era berean, teknikoki inkesta ikasturtearen baitan egitea aurreikusten denez, errazagoa egingo zaie informatzaileei ikasturte barruko jarduerari buruz hitz egitea iraganari buruz pentsatzen hastea baino, eta jasoko den informazioa fidagarriagoa izango da.

4. METODOLOGIA

Aurreko galdera horiei erantzuteko, ikerketa kuantitatiboa egitea planteatzen da, inkesta bidez. Hurrengo ataletan zehazten dira ikerketaren xede-taldeak eta berengana iristeko modua, inkestan lantzeko proposatzen diren eduki nagusiak, landa-lana aurrera eramateko zehaztapenak eta datuak jasotzeko modua.

4.1. Xede-taldeak

Inkestaren helburua izango da Gasteizen bizi diren 2 eta 17 urte bitarteko haur eta nerabeen inguruan aurrez planteatutako galderei erantzuna ematea. Inkestak helarazteko, nagusiki Gasteizko ikastetxeen bidez, bana baita Ikasleen Guraso Elkarteen bidez lan egitea proposatzen da.

Hala eta guztiz ere, zehaztutako kolektiboaren baitan izaera oso desberdineko pertsonak daudela kontuan hartuta (autonomia mailari dagokionez, erabakiak hartzeko gaitasunari dagokionez, gurasoekiko duten harremanean eta baita aisialdiko denbora antolatzeke moduan ere), inkesta bi modu desberdinetara luzatuko da:

- 2 eta 9 urte bitarteko haurren kasuan (Haur Hezkuntzako 2 urteko geletatik Lehen Hezkuntzako bigarren mailararte), inkesta erantzungo duten subjektuak eta inkesta luzatuko zaienak gurasoak izango dira. Hau da, haur bakoitzeko erreferentziatzko gurasoak bete dezan inkesta eskatuko da.
- 10 eta 17 urte bitarteko haurren kasuan (LMH3tik Batxilergoko 2. mailararte), inkesta erantzungo duten subjektuak eta inkesta luzatuko zaienak haurrak edo gazteak beraiek izango dira. Hau da, pertsona bakoitzak norberari buruz erantzungo ditu galderak, gurasoen presentziarik gabe.

Banaketa hori egitearen oinarrian haurraren hazkuntza-prozesua eta irakurketa-idazketa gaitasuna dago. Izan ere, haurra txikia denean bere aisialdi denboraren kudeaketa eta ezaugarritzea gurasoen esku dago hein handi batean, eta familia-aisialdiak pisu handiagoa izango duela aurreikusenez. Aldiz, haurra helduz doan heinean, bere aisialdiko denboraren gero eta jabeago da, eta familia-aisialdiaren presentzia beste jarduerak batzuekin ordeztzen joaten da (eskolaz kanpoko jarduerak adinkideekin, antolatu gabeko aisialdia...).

Datuak biltzeko moduak desberdintasun hori erreproduzitu egingo duela presente daukagu, baina edozein kasutan errealitate gerturatzeko modurik egokiena dela baloratzen dugu arrazoi tekniko honengatik: haurrak txikiak direnean inkesta erantzuteko gaitasun mugatua dute, eta gurasoen erabakimena ere handia denez beren aisialdiaren inguruan, erantzun fidagarrienak eta osatuenak gurasoek eskain ditzaketela baloratzen da.

4.2. Inkesta diseinua

Ikerketaren hasieran Euskara Zerbitzuarekin batera landuko dira ikerketaren helburuak eta inkestan galdetuko diren eduki zehatzak. Edozein kasutan, Aztikerretik lehenengo proposamen moduan honako gaiak lantzea proposatzen da:

1. Atal soziodemografikoa (ETXEKIDEENA)

- 1.1. Etxekide kopurua
- 1.2. Auzoa
- 1.3. Etxekideen adina, sexua eta jatorria
- 1.4. Etxekideen hizkuntza-profila: lehen hizkuntza, euskara gaitasuna
- 1.5. Etxekideen artean hitz egiten den hizkuntza

2. Denbora librea (HIZPIDE DEN HAURRARENA):

- 2.1. Zer egiten du egunean zehar. Denbora libreak identifikatu. Aste bateko informazioa jaso.
- 2.2. Zer egiten du denbora librean. Jarduera zehatzak identifikatu. Aste bateko informazioa jaso.
- 2.3. Jarduera bakoitzaren inguruko informazioa jaso:
 - 2.3.1. Antolatua edo ez-antolatua da?
 - 2.3.2. Norekin egiten du? Familia, gertuko lagunak, adinkideak, bakarrik...
 - 2.3.3. Zenbat denbora irauten du?
 - 2.3.4. Zein hizkuntzetan da? Euskara, gaztelania, ingelesa, frantsesa, beste.

3. Euskararen presentzia aisialdian (HIZPIDE DEN HAURRARENA):

- 3.1. Aisialdia euskaraz egiteari aitortzen zaion garrantzia: aktiboki bilatzen da edo ez? Eremuka.
- 3.2. Gasteizen dagoen euskarazko eskaintzaren balorazioa: nahikoa da, gehiago beharko luke, berdina zaie...
- 3.3. Aisialdia euskaraz izatearen / euskarazko aisialdiaren inguruko iritzi eta jarrerak (balio positibo eta negatiboak islatzen dituzten adierazpenen aurreko posizionamendua adierazi). Adibidez:
 - 3.3.1. Garrantzitsua ikusten da euskarazko aisialdia izatea /ez
 - 3.3.2. Euskaraz diren jarduerak aspergarriagoak dira
 - 3.3.3. Esfortzu gehigarri bat eskatzen du euskarazko jarduerak egiteak
 - 3.3.4. Euskarazko jarduerak egiteak aisialdian euskara-gaitasuna areagotzen du
 - 3.3.5. Euskarazko jarduerak balio erantsia dute
 - 3.3.6. ...

4.3. Landa-lana

Ikasketa-zentroen elkarlanarekin egingo da ikerketa honen landa lana. Gasteizen kokatutako ikasketa-zentroekin harremana egingo da Udaleko Euskara Zerbitzuaren izenean eta beren bidez helaraziko zaizkie inkestak familiei edota haurrei zein gazteei.

Segidan zehazten da erabiliko den metodologia landa-lana egiteko:

- Lehenengo eta behin, Aztikerreko eta Euskara Zerbitzuko teknikarien artean ikerketan parte hartuko duten ikastetxeen kontaktuen zerrenda osatuko da.
- Laginketan hautatutako ikastetxe guztiei emango zaie proiektuaren berri eta kolaborazioa eskatuko zaie.
- Kolaboratzeko prest dauden ikastetxeei inkesta zabaltzeko irizpide zehatzak luzatuko zaizkie aurrerago azalduko den laginketa sistemaren eta prozeduraren baitan. Kontaktatutakoetatik baten bat kolaboratzeko prest agertuko ez balitz, ausaz antzeko ezaugarriak dituen beste ikastetxe batengatik ordezkatu da. Bi ordezkapenera arte edo antzeko ezaugarriko ikastetxeak amaitu arte egingo da saiakera.
- Aztikerreko teknikarien eta ikastetxeetako ordezkarien artean koordinazioa egongo da inkestak zabaltzeko eta erantzunak jaso bitartean.
- Horrekin batera, saiakera egingo da ikastetxe bakoitzeko IGE-tik errefortzu lana egin dezaten, gurasoen kasuan, inkesta erantzun dezaten animatuz.
- Bide honetatik, aurrerago zehazten diren inkesta kopuru minimoetara ez bagina iritsiko, inkestak on line erantzuteko beste estrategia batzuk gauzatuko lirateke (Facebook / Instagram publizitate segmentatuen bidez, internauten panelisten bidez edota mugikorren direktorio zehatzen bidezko SMS mezuen bidez).

Laginketan hautatutako ikastetxe guztiekin egingo da harremana eta saiakera egingo da ahalik eta erantzun gehien jasotzeko. Edozein kasutan, **Salburua eta Zabalganako eremuetarako bakoitzeko gutxienez 800 inkesta biltzea izango da helburua, Lakuan 400 eta gainontzeko Gasteizen 200**, hainbat aldagaien arabera banatuta: ikasketa maila, hizkuntza eredu, ikastetxearen titulartasuna eta auzoa edo gune geografikoa.

Gasteizen, guztira 44.209 adinez txikiko zeuden 2020an. 2017ko eskolatze tasei erreparatuta, bi urtetik gorako haur ia guztiak ikastetxeren batean eskolatuta zeudela ikusten da. Adin horren aurretik aisialdi jardueretako parte hartzea nahiko baxua dela jakinda, 2tik 17 urte bitarteko tartea hartuko da kontuan.

GASTEIZKO EUSKARA ZERBITZUA: Eskolaz kanpoko aisialdiaren eta familia aisialdiaren azterketa Gasteizen, 2021. Egitasmo proposamena.

Gasteizen bizi diren 0-17 urte bitarteko pertsonak eta eskolatzetasa

	Guztira (2020)	Eskolatzetasa (2017)
0 urte	1.998	15,1
urte 1	2.134	46,6
2 urte	2.325	88,6
3 urte	2.462	98,5
4 urte	2.593	99,2
5 urte	2.638	98,2
6 urte	2.477	99,3
7 urte	2.636	99,3
8 urte	2.712	98,6
9 urte	2.750	98,8
10 urte	2.585	100,0
11 urte	2.635	100,6
12 urte	2.423	102,1
13 urte	2.424	102,4
14 urte	2.364	102,4
15 urte	2.407	101,8
16 urte	2.397	103,4
17 urte	2.289	101,6
0-17 urte	44.249	

Iturriak: Biztanleriarentzat INE, 2020 eta eskolatzetasantzat Siis (2017) *Estudio diagnóstico de la situación de la infancia y la adolescencia en Vitoria-Gasteiz*, 75.or.

Ikasleak ikas-mailaka. Matrikula 2020-2021 Ikasturtea, Gasteiz.

Titulartasuna	Hizkuntza eredua	HHZ1	HHZ2	LMH	DBH	BATX	GUZTIRA
PUBLIKOA	A EREDUA	8	123	501	467	381	1.480
PUBLIKOA	B EREDUA	11	99	724	507	445	1.786
PUBLIKOA	D EREDUA	1.746	3.618	7.583	3.467	1.188	17.602
PRIBATUA	A EREDUA	43	207	479	972	1.112	2.813
PRIBATUA	B EREDUA	792	2.425	5.204	3.599	374	12.394
PRIBATUA	D EREDUA	186	502	1.102	1.172	728	3.690
GUZTIRA		2.786	6.974	15.593	10.184	4.228	39.765

Iturria: Hezkuntza delegaritza, 2020.

Unibertsoaren ezaugarriei dagokienez, ikerketa honetan kontuan hartuko dira Gasteizen kokatutako LH-tik Batxilergora bitarteko ikastetxeetan dauden ikasleak, hiru hizkuntza-ereduetakoak eta zonalde geografiko desberdinetakoak. Hizkuntza-ereduei dagokienez, D eta B ereduetako pertsonak kontuan hartuko dira potentzialki aisialdian euskara erabiltzeko aukera duten biztanleria direla kontuan hartuta. Baina A ereduko ikastetxeetako ikaslearen errealitatea jasotzea ere ikerketa honen helburua: batetik, posible delako aisialdian euskarazko eskaintzetara gerturatzea moduren batean eta hori erregistratzea garrantzitsua delako; bestetik, etorkizunera begira biztanleria hori euskalduntzeko espazio potentzial moduan kokatzen delako aisialdia eta, beraz, beren beharrak eta interesak ezagutzea oinarritzakoa delako. Modu horretan, ikerketa honek inklusio eta kohesio sozialean sakontzeko gakoak eskaintzeko aukera izango luke.

Zonalde geografikoei dagokienez, Gasteizko gunen guztien artean batzuk interesgarriagoak dira ikerketa honen ikuspegitik, demografikoki biztanleria gazteagoa bizi delako beraietan eta etorkizunera begira ere Euskara Zerbitzutik hiru auzotan eragin nahi delako bereziki. Interes bereziko gunen horiek Salburua, Zabalzana eta Lakua dira. Horren bistan, Gasteiz osoa hartuko da kontuan ikerketan baina laginketa egiterakoan indar berezia jarriko da hiru auzo horietako inkestak jasotzean. Hurrengo taulan ikusten den moduan, ikerketa honetan bilatuko den inkesta kopuru minimoa 2.200ekoa izango da, horietatik 800na Salburuan eta Zabalganen, Lakuan 400 eta beste 200 gainontzeko Gasteizen.

Lortu beharreko gutxieneko inkesta kopurua eremu bakoitzeko:

	Ikasleak	Taldeak
Salburua	800	38
Zabalzana	800	38
Lakua	400	19
Gainontzeko Gasteiz	200	10
n=	2.200	105

Unibertso hori kontuan hartuta, orain arte finkatutako irizpideen arabera laginketa bat egin da eta ikastetxe batzuk hautatu dira beraien bidez egiteko ikerketako landa lana. Guztira, proposatzen da ikerketa hau aurrera eramateko 21 ikastetxeren kolaborazioa edukitzea, HH-LH-DBH eta Batxilergoa ematen dutenak. Eskura dauden datuak kontuan hartuz eta estimazio bat eginez, guztien artean 418 geletara iristeko aukera edo potentzialitate egongo litzateke prozedura honekin eta 9.320 ikaslerengana (bilatuko den minimoa 2.200 ikasleren inguruko informazioa jasotzea izango dela kontuan edukita).

Hurrengo irudian ikus daiteke Gasteizko Haur eta Lehen hezkuntza eskaintzen duten ikastetxeetan izena emateko zonifikazioan nola banatzen den geografikoki hiriko zonalde desberdinetan:

Gasteizko ikastetxeen mapa



Ikerketa honetarako, Salburuako ikasleak banatzen diren (irudiko 4. zonaldea) 7 ikastetxerekin harremana egitea proposatzen da, Zabalganako (2. zonaldearen zati bat eta 3.aren beste bat) 5 ikastetxerekin, Lakuako (2. zonaldearen zati bat) 4 ikastetxerekin eta erdigune-hegoaldeko (1. zonaldea eta 3. zonaldearen zati bat) 5 ikastetxerekin.

Ikastetxe bakoitzari eskatuko zaio HH eta LHko lehen zikloko guraso guztiei inkesta bidaltzeko, eta beraz adin horietako ikasle guztien erantzunak jasotzeko bide emango da (6.468 haur inguru, datu ofizialetatik eratorritako estimazioaren arabera gela kopurua 22 ikaslerekin biderkatuta). LHko bigarren ziklotik gora, ikasmila bakoitzeko gela batean inkesta egiteko kolaborazioa lortzea izango da helburua (2.852 haur ingururen datuak eskuratzeko aukera, gela kopurua 23 ikaslerekin biderkatuta). Modu honetan antolatuta, honakoa litzateke unibertsoaren eta lagin teorikoaren arteko alderaketa:

Unibertsoa eta lagin teorikoaren arteko alderaketa

		Unibertsoa		Lagin teorikoa	
		Ikasleak	%	Ikasleak	%
Titulartasuna	Pribatua	18.897	47,5	2.774	29,8
	Publikoa	20.868	52,5	6.546	70,2
	Guztira	39.765	100,0	9.320	100,0
Hizkuntza-eredua	A eredua	4.293	10,8	316	3,4
	A-B			626	6,7
	B eredua	14.180	35,7	1.206	12,9
	B-D			488	5,2
	D eredua	21.292	53,5	6.684	71,7
	Guztira	39.765	100,0	9.320	100,0

Hurrengo taulan jasotzen da lagin teorikoa osatzeko egiten den proposamen zehatza. Bertan jasotzen dira honako datuak: gunea, ikastetxea, titulartasuna, hizkuntza-eredua, ikasmila bakoitzeko dauden taldeak eta proposatutako prozedurarekin kontaktatuko liratekeen pertsonen estimazioa.

Lagin teorikorako proposamena

Gunea	Ikastetxea	Titulartasuna	Hizkuntza eredia	TALDEAK						PERTSONAK (ESTIMAZIOA)			
				HHZ1	HHZ2	LMH1-2	LMH3-6	DBH	BATX	Guztira	HH-LH2	LMH3-Batxi	Guztira
Salburua	Errekabarri	Publikoa	D eredia	3	9	6	4			22	396	92	488
Salburua	Arantzabela	Publikoa	D eredia	3	9	6	4			22	396	92	488
Salburua	Salburua	Publikoa	D eredia	3	9	6	4			22	396	92	488
Salburua	Ikasbidea	Publikoa	D eredia	3	9	6	4	4	2	28	396	230	626
Salburua-Beste	Koldo Mitxelena	Publikoa	D eredia					4	2	6	0	138	138
Salburua-Beste	Los Herran	Publikoa	D eredia					4	2	6	0	138	138
Salburua-Beste	Calasanz	Pribatua	B eredia	3	9	6	4	4		26	396	184	580
Salburua				15	45	30	20	16	6	132	1.980	966	2.946
Zabalgana	Zabalgana	Publikoa	D eredia	3	9	6	4			22	396	92	488
Zabalgana	Aldaialde	Publikoa	D eredia	3	9	6	4			22	396	92	488
Zabalgana	Mariturri	Publikoa	D eredia	3	9	6	4			22	396	92	488
Zabalgana	Zabalgana	Publikoa	D eredia					4	2	6	0	138	138
Zabalgana-Beste	Armentia	Pribatua	D eredia	3	9	6	4	4	2	28	396	230	626
Zabalgana				12	36	24	16	8	4	100	1.584	644	2.228
Lakua	Lakuabizkarra	Publikoa	D eredia	3	9	6	4			22	396	92	488
Lakua	Barrutia	Publikoa	D eredia	3	9	6	4			22	396	92	488
Lakua	San Prudencio	Pribatua	A-B	3	9	6	4	4	2	28	396	230	626
Lakua	Lakua	Publikoa	D eredia					4	2	6	0	138	138
Lakua				9	27	18	12	8	4	78	1.188	552	1.740
Erdigunea	Luis Dorado	Publikoa	B-D	3	9	6	4			22	396	92	488
Erdigunea	Landazuri	Publikoa	D eredia	3	9	6	4			22	396	92	488
Erdigunea	Presentacion de Maria	Pribatua	B eredia	3	9	6	4	4	2	28	396	230	626
Hegoaldea	Nazaret	Pribatua	A eredia	1	3	2	4	4		14	132	184	316
Hegoaldea	Adurtza	Publikoa	D eredia	3	9	6	4			22	396	92	488
Gainontzeko Gasteiz				13	39	26	20	8	2	108	1.716	690	2.406
GUZTIRA				49	147	98	68	40	16	418	6.468	2.852	9.320

Prozedura:

Gurasoen bidez, gela guztietara zuzendu

Ikasleen bidez, ikasmila bakoitzeko gela bat

4.5. Datuak jasotzeko modua eta ustiaketa

Inkesta diseinatu, zabaldu eta datu-baseak osatzeko Aztikerrek garatutako ZOOM plataforma propioa erabiliko da. Ikerketa soziala egiteko tresna da ZOOM, inkestak modu ezberdinetan aplikatuz (inkesta irekiak on-line, on-line panel propioa, inkesta telefonikoak, aurrez-aurrekoak...), eta momentu eta gaiaren arabera interesatzen den metodologia erabiliz. Honako abantailak eskaintzen ditu:

- Email pertsonalizatuak eskuragarri dauden kasuetan, inkestaren bidalketa eta jarraipen pertsonalizatua egin daiteke datuen babesak zehazten dituen irizpideak errespetatuz. Modu horretan, uneoro jakin daiteke erantzule bakoitza inkestaren zein puntutan dagoen, eta galdetegia betetzen jarraitzeko eskaera pertsonalizatuak bidal daitezke emailez.
- Inkestako emaitza orokorrak ikusgarri izan ditzake Gasteizko Udalak uneoro.
- Lortzen diren datu guztiak Aztikerren aplikazio propioetan jasota geldituko dira, bitartekaririk gabe.

Landa lana amaitutakoan, ZOOM plataformatik datu baseak deskargatuko dira eta araztu eta ustiatu egingo dira. Ustiaketan, beharrezko berkodezteak eta lanketa estatistikoak egingo dira ikerketaren helburuak betetzeko.

Emaitzak modu orokorrean aztertuko dira, baina baita interesekoak diren aldagaien arabera gurutzatuta ere. Honako aldagaiak aurreikusten dira:

- Haurraren adina
- Haurraren sexua
- Auzoa
- Ikastetxea
- Jatorria
- Pertsonaren eta familiakideen euskara ezagutza eta erabilera

5. ENTREGAGAIAK

Ikerketaren amaieran, honako materialak utziko ditu Aztikerrek Gasteizko Udalaren eskura:

- Emaizen txosten orokorra, datuak eta interpretazioarekin (zerbitzuaren zehaztapenei buruzko memoria teknikoa ere bertan jasoko da, harremanetan jarritako ikastetxe kopurua eta jasotako erantzunak biltzen dituen)
- Galdera bakoitzeko taula gurutzatuak, intereseko aldagaien arabera aztertuta
- Erabilitako galdesorta ereduak
- Sortutako datu-baseak

Egitasmoa zehazterakoan baloratu eta adostuko da Gasteizko Euskara Zerbitzuarekin bestelako entregagairik interesekoa ikusten baldin badu.

6. KRONOGRAMA

Ikerketa egiteko garairik egokiena ikasturte barruan dela ikusten da. Izan ere, norbanako guztientzat eta bereziki aztergai ditugun haur eta nerabeentzat, urteko zatirik handiena biltzen duen errutina ikasturtean zehar gertatzen da.

Hori horrela izanda, ikerketa osoa 2021eko urria eta Abendua bitartean egitea proposatzen da. Honako kronograma jarraitzea planteatzen da:

	IRAILA		URRIA		AZAROA		ABENDUA	
Ikerketa diseinua, inkesta diseinua eta ikastetxeekin kontaktua hasi								
Ikastetxeekin kontaktazioa eta laginaren zehaztapena								
Landa lana: inkesta bidalketa eta jarraipena								
Ustiaketa, analisia eta txosten definitiboa								

Oharra: ikerketaren ezaugarriak kontuan hartuta (xede-taldeak eta landa lana egiteko planteamendu metodologikoa) ezinbestekoa da ikasturte batean zehar egitea lana. Hori kontuan izanda, ikerketa osoa 2021-2022 ikasturtean kokatzea da proposatzen dena egitasmo honetan, nahiz eta esleipena aurretik jakinarazi.

7. AZTIKERREN AURREKO ESPERIENTZIA

Aztiker 20 urtetik gorako esperientzia duen kooperatiba da, gizarte-ikerketa eta parte-hartze prozesuetan espezializatua. Segidan jasotzen dira azken urteetan egindako lan esanguratsu batzuk euskararen eremuan eta metodologia desberdinak aplikatuz, eta baita Gasteizko eskolaz kanpoko aisialdiaren eta familia aisialdiaren azterketa egiteaz arduratuko den lantaldearen ezaugarriak ere.

7.1. Aurreko ikerketak

Euskara marka: euskarak gizarte garaikidean duen irudiari buruzko ikerketa (2019)

Metodologia kuantitatiboa: Euskal Herri mailako inkesta

EHUko Nik ikerketa taldearen eskariz egindako ikerketa honen helburu nagusia egun Euskal Herriko biztanlerian euskara eta euskal kulturaren marka irudia osatzen duten asoziazio, diskurtso, jarrera eta pertzepzioak neurtu eta aztertzea izan zen. Horretarako, inkesta bat egin zitzaion CATI (telefonoz) eta CAWI (online) sistemak konbinatuz. Euskal Herriko 18 urtetik gorako biztanleriari (2.700.633 herritar). 1.188 pertsonako lagina osatu zen, $\pm 2,9\%$ ko akats tartearekin eta $95,5\%$ eko konfiantza mailarako, $p=q=50,0$ hipotesirik kontrakoarentzat.

Ikastolen inguruko pertzepzioak eta iritziak (2020)

Metodologia kuantitatiboa: inkesta

Ikastolen Elkarteak eskatutako ikerketa honen helburua izan zen gaur egun Euskal Herriko biztanleriak egiten dituen asoziazioak eta dituen hautemate eta iritziak neurtu eta aztertzea hezkuntzaz orokorrean eta, zehazkiago, ikastolez. Euskal Herriko 18 eta 65 urte bitarteko biztanleei egindako inkesta baten bidez jaso ziren datuak, Hego Euskal Herrian CATI sistema telefonikoaren bidez egin zirenak eta Iparraldean online sistema autoaplikatuaren bidez (CAWI). 1.558 inkesta jaso ziren guztira; akats-tartearen kalkulua $\pm 2,5\%$ koa da unibertso osorako, $95,5\%$ eko konfiantza mailarako, $p=q=50,0$ hipotesirik kontrakoarentzat.

Eskolara buelta (2020)

Metodologia kuantitatiboa: inkesta

Aztikerrek garatutako ZOOM plataforma online propioa erabiliz egindako ikerketa bat da honakoa, 2020-2021 ikasturtearen hasiera zela-eta, hezkuntza komunitatea osatzen duten familien iritziak eta kezak aztertzeko. Aldi berean, konfinamendu-egoeraren umeen bizipena eta koronabirusak sortutako osasun-krisiarekin lotutako bestelako gaiak landu ziren. Hego Euskal Herrian kokatutako ikerketa izan zen, eremu horretan bizi eta 3-12 urte arteko umeak dituzten familiei zuzendua. Inkesta bide digitaletik egin zen, inkestatuak berak autobetetako galdetegi baten bidez (CAWI). Parte hartzeko gonbidapenak hiru bidetatik zabaldu ziren: SMSak ausazko telefono mugikorretara bidalita, iragarkiak Facebook/Instagramen argitaratuta eta jendeak beste sare sozialetatik zabaldua. Lehenengo azpi-lagina ausazko hautaketan oinarritzen da, eta bigarrenak beha daitezkeen estaldura- eta partaidetza-joeren gabeziak murriztu nahi ditu biztanleriaren funtsezko parametroetara egokitzeko. Guztira 800 inkesta baliozko jaso dira.

Euskara Ari Du: Baietz Hernanik erronkaren azterketa teknikoa (2018)

Metodologia kuantitatiboa: panel bidezko ikerketa longitudinala

Hernaniko Euskara Ari Du elkarteak 2018an kudeatu zuen urtebeteko iraupeneko erronka bat, herritarren hizkuntza-ohituretan eragitea helburu zuena. Horretarako, izena emandako pertsona bakoitzak hilero erronka bat hartzen zuen eta hurrengo hilabetera arte betetzeko konpromisoa zuen. Erronkaren jarraipena modu sistematikoan egiteko, Aztikerrek hilero inkesta bat emailez helarazi zien partaideei balorazio datuak jasotzeko. Bildutako informazioarekin, erronkaren urtebeteko bilakaera eta emaitzak osatu ziren.

Ikastetxe publikoetan eskolaz kanpoko kirol-jarduerak dinamizatzeko laguntza-beharren azterketa, 2016

Metodologia kualitatiboa: elkarrizketa sakonak eta eztabaida-taldeak

Denon Eskolaren eskariz egindako lan honen helburua izan zen Arabako ikastetxe publikoetan eskolaz kanpoko kirol-jarduerak dinamizatzeko laguntza-beharren diagnostiko eguneratua egitea: eskuragarri zeuden baliabideen erabilgarritasuna eta sortu diren ereduak ezagutzea; aztertzea baliabide horiek eskaintzen dituzten aukerak eskolaz kanpoko jarduerak eta eskola-kirola antolatzen laguntzeko zailtasunak dituzten guraso elkartei; eta hobetzeko eredu edo elementu desberdinak aztertzea. Metodologia kualitatiboa erabili zen: 70 elkarrizketa-sakon eta 3 kontraste saio egin ziren zehazki.

7.2. Giza-baliabideak: ikerketa-taldea

Honakoa izango da ikerketan parte hartuko duen lantalde teknikoa:

Asier Etxenike Ugarte (Kalitate-arduraduna)

(Euskara C1 EGA)

Proiektua gainbegiratzeaz eta kalitate-bermeak fase guztietan ziurtatzeaz arduratuko da: diseinuan, landa lanean eta emaitzen azterketan.

Soziologoa ikasketaz (UPV/EHU), hamar urte baino gehiagoko esperientzia du Aztikerren ikerketa sozialak egiten. Soziolinguistikan eta hauteskunde inkestetan espezializatuta dago. Azken urteotan, berrikuntzaren arloko arduraduna da: lagin-diseinua eta landa-lanerako teknika berriak aztertzeaz arduratzen da.

Hauek dira bere azken lanetako batzuk:

- Gipuzkoako herritarren kultura politikoa (2017)
- Euskara marka: euskarak gizarte garaikidean duen irudiari buruzko ikerketa (2019)
- Ikastolen inguruko pertzepzioak eta iritziak (2020)

Enara Eizagirre Arandia (Ikerketa saileko teknikaria)

(Euskara C2 HABE)

Proiektuko landa lana egiteaz arduratuko da: diseinua, ikastetxeekin kontaktazioa, inkestak bidali/jaso eta ustiaketa.

Gizarte antropologoa da ikasketaz (Gizarte Antropologiako Gradua UPV/EHUen eta Ikerketa Antropologikoa eta bere Aplikazioen Masterra UNEDen), bost urtetik gorako esperientzia du Aztikerren ikerketa sozialak egiten. Lan kualitatiboetan espezializatua dago, eta euskararen inguruko hainbat gai jorratu ditu azken urteetan.

Honakoak dira bere lanetako batzuk:

- Euskara Ari Du: Baietz Hernanik erronkaren azterketa teknikoa (2018)
- ... eta kitto! euskarazko aldizkariaren kontsumo azterketa (2018)
- APPLIKA+ unibertsitateko ikasleen ikus-entzunezko ohituren azterketa, panelaren jarraipena (2018-2020)

Elena Ramirez Boixaderas (Ikerketa saileko teknikaria)

(Euskara C1 HABE)

Proiektuko landa lana egiteaz arduratuko da: diseinua, ikastetxeekin kontaktazioa, inkestak bidali/jaso eta ustiaketa.

Gizarte antropologoa da ikasketaz (Gizarte Antropologiako Gradua Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan eta Antropologia eta Etnografiako Masterra Bartzelonako Unibertitatean), Antropologia arloko hainbat ikerketetan parte hartu du ikertzaile moduan UPV/EHU-n eta UAB-n. 3 urtetako esperientzia du ondare etnologikoaren ikerkuntzan eta sustapenean administrazio publikoan (Generalitat de Catalunya).

Honakoak dira bere lanetako batzuk Aztikerren:

- Euskarari buruzko ikerketen direktorioa (2019-2020)
- Euskal Herriko herri mugimenduen mapeoa eta ezaugarritzea (2020-2021)
- Gobernantza eredu berrien inguruko hausnarketa (2020)

8. AURREKONTUA

Egitasmo honetan zehaztutako lanek jarraian agertzen den aurrekontua dute:

Aurrekontua

	Aurrekontua
Diseinua eta zuzendaritza	550
Laginketa eta galde sorta	990
Landa lana	1.925
Analisia, txostena eta aurkezpena	1.760
Guztira	5.225

Oharra: Aurrekontuari BEZ-a gehitu behar zaio (%21)



aztiker
SOZIOLOGIA IKERGUNEA

AZTIKER KOOP. ELK. TXIKIA

Martin Ugalde Kultur Parkea

Gudarien etorbidea z/g

20140 Andoain (Gipuzkoa)

943593006

www.aztiker.eus

idazkaritza@aztiker.eus